

Jaun-andreok, Eguerdion.

***Ahotsa, hitzak, hizkuntzak* deritzon euskal olerki antologiaren barneko historia**

Euskal Herriko olerki antologia burutzeko proiektua Euskaltzaindiaren zuzendaritzari –Euskaltzainburuari, zehazki- bururatu zitzaion: *Euskal olerki antologia* bat euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez prestatzea. Pablo González de Langarika aukeratu zuen kudeatzaile. Pablo *Zurgai* olerki aldizakariaren *factotuma* da, baita sarritan saridun olerkari ere. Argi zegoen, beraz, proiektuak olerki antologia izan beharko lukeela. Ni neu sartu ninduten gerotxoago proiektu horretan eta gustura ibili naizela aitortu behar dut: lana polita iruditu zait eta Pablarekin lana erraza eta aberatsa izan da.

Pablo González de Langarikak baldintza bakarra jarri zuen hasieratik: Antologian, euskal olerkarietz gain, Euskal Herriko erdal olerkariak ere agertu beharko zutela. Ados. Berak erdal idazleak aukeratuko zituen eta nik euskal idazleak.

Antologia batean, zer da hobe olerkari askoren olerki bana hautatzea ala olerkari batzuen (gutxi nolanahi ere) olerki multzo adierazgarria? Guk bigarren bidea aukeratu genuen, irakurleak aukeratutako olerkarien zaporea dastatu ahal izan dezan. Ildo berean, XX. mendeko bigarren erdiko olerkariak soilik hautatzea hobetsi genuen eta ez, mendeetan zeharreko Euskal Herriko olerkariak aurkeztea.

Aurrera gindoazela, beste hautaketa bati aurre egin behar izan genion. Zenbat olerkari eta zenbat olerki hautatu. Olerkiek lau hizkuntzatan agertu beharko luketela kontuan hartuta: bost erdal eta bost euskal idazle aukeratzea erabaki genuen eta olerkari horien bosna olerki; berrogeita hamar olerki bider lau guztira berrehun. Ezin gehiagorik liburu bakar batean. *Gauza gutxi, beti goxo.*

Pablok Angela Figuera, Blas de Otero, Javier de Bengoechea, Jorge González Aranguren eta Blanca Sarasua aukeratu zituen eta nik hauexek: Juan Mari Lekuona, Bitoriano Gandiaga, Gabriel Aresti, Xabier Lete eta Bernardo Atxaga. Nik, neure partez, iradokizun bat mahaigaineratu nuen antologiari zenbait berezitasun emateko xedez: olerkien hautaketarako espezialistak aukeratu beharko genituela, baita espezialistoi sarrera kritiko bana eskatu ere: zergatik aukeratu olerki horiek eta ez besteren batzuk. Pablok Jose Ramón Zabala, Juan José Lanz, José Fernández de la Sota, Felipe Juaristi eta Seve Calleja aukeratu zituen eta nik Jon Kortazar, Pello Zabala, Kirmen Uribe, Amaia Iturbide eta Iñaki Aldekoa.

Azkenean, itzultzaile egokiak aukeratzea geratu zitzaigun, ahal izanez gero, olerkari onak ere izan beharko zutenak. Pablok Luigi Anselmi, Felipe Juaristi eta Jose Ramon Zabala aukeratu zituen euskal izulpenetarako eta nik Amaia Iturbide. Euskaratik frantsesera itzultzeko Pablo Hélène Laurent-ez

baliatu da eta ni Itxaro Bordaz. Ingeleleserako itzulpenak Eli Tolaretxipik eta Amaia Garbantxok egin dituzte. Lan bikaina egin duten hautatzaile eta itzultzaile guztioi, eskerrik asko.

Azkenean, Pablori buruatu zitzaion liburuak txukuna izan beharko lukeela eta horretarako Ikeder-ekin egin dugu lan soinez soin. Alex Zugazari, beraz, mila esker.

Ardura osoz egin arren, beti zerk edo zerk eztabaidagarri suertatu behar. Euskal olerkarien artean ez dut emakumerik aukeratu, ezta iparraldeko olerkaririk ere (Pablok zuhurrago jokatu du eta erdal idazleen artean, emakume bi sartu ditu: Angela Figuera eta Blanca Sarasua). Dena den, nire deskargoan, hauxe esan nahi dut: antologia batean, are gehiago, berez, laburra eta lau hizkuntzatan argitaratua izan behar duen antologia batean, arazoa ez da nor sartu, nor kendu baizik. Badakit euskal olerki munduan emakume olerkari onak daudela, baina iparraldeko olerkari bikainak ere. Baina aukeratutako euskal olerkarien artean nor kendu... Beti eztabaidagarri gertatzen den hautaketa horretan *políticamente correctoa* ez duela izan behar erabaki irizpideak, kalitateak baizik Onartu egiten dut kalitate arloan nire erabakia diskutigarria izan daitekeela... baina mesedez ez nahastu ez genero, ez lurralde irizpideekin.

Antologia hau guztiontzat interesgarria izatea izan dugu helburu. Zuetako askok, denok ez esatearren, aukeratutako olerkariak eta olerkiak ezagunak dituzue, baina liburu horretan olerkari horiengan espezialistak diren ikertzaile jantzien hautaketa duzue, baina ikertzaileon hautaketa motiboak ere... eta batek baten Antologia honetan ezagutzen ez zuen olerkari zein olerki bat edo bat baino gehiago topatuez gero... ba “urrea diamantearekin”.

Bestalde, eta bukatzeko, pozgarria iruditzen zait euskarak eta Euskaltzaindiak bildu izana Euskal Herriko euskal eta erdal olerkariak liburu bakarrean: nola eta, ingelesa lekuko, gure bi hizkuntzek (dela euskara eta gaztelania, dela euskara eta frantsesa) elkarri bultzada emanaz, nora eta aurrera elkarrekin joateko asmoz. Elkartze aberasgarri horren sinbolo bezala liburu hau txalogarria dela iruditzen zait. Orain zuen esku geratzen da abegi onez tratatuko duzuen esperantzaz.

Bilbon, 2010eko urriaren 8an

Sebastian Gartzia Trujillo